



Lehiaren
Euskal Agintaritza

Autoridad Vasca
de la Competencia

LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN TXOSTENA, GIPUZKOAKO PERITU ETA INGENIARI TEKNIKO INDUSTRIALEN ELKARGO OFIZIALAREN ETA ADAR TEKNIKO HORRETAKO INGENIARITZAN GRADUATUEN ESTATUTUEI BURUZKOA

Osoko bilkura

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, presidentea

Natividad Goñi Urriza andrea, kidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kidea

Idazkaria: Ibon Alvarez Casado jauna

Laburpena:

| | |
|--|----|
| I. AURREKARIAK..... | 2 |
| II. LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN ESKUMENAK ETA AURRETIKO HAUSNARKETA JURIDIKOAK..... | 2 |
| III. GOGOETA LEHIARI BURUZKO ARAUAK DIRELA-ETA | 4 |
| 1 Elkargo bateko kidea izateari buruzko gaiak | 4 |
| A. OBLIGAZIOZKOTASUNA..... | 4 |
| B. Titulazioa | 7 |
| 2. Elkargokidetze bakarra estatuko lurralde osorako..... | 8 |
| 3. Ordainsariak..... | 9 |
| A. Ordainsariak kobratzeko elkargo-zerbitzua..... | 9 |
| B. Ordainsariei eta prezioak zeharka zehazteari buruzko txostenak | 10 |
| 4. Onespena..... | 11 |
| A. Onespenerako gaitasuna..... | 13 |
| B. Onespena exijitzea..... | 14 |
| C. Objektua..... | 15 |
| D. Onespenen edo bisen kostua | 16 |
| 5. Elkargoko kideak elkarren kontrako lehia bidegabean aritzea | 17 |
| 6. Elkargoa elkargokideen lehia desleial gisa | 18 |
| 7. Elkargoaren baliabide ekonomikoak..... | 20 |
| 8. Enkarguak Elkargoaren bitartez esleitzea elkargokideei..... | 20 |
| 9. Oker egindako lanen erantzukizuna. Erantzukizun zibileko aseguruak | 21 |
| IV. ONDORIOAK | 23 |

Lehiaren Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkurak (aurrerantzean LEK), arestian aipatutako osaera duenak, Gipuzkoako Peritu eta Ingeniari Tekniko Industrialen eta adar tekniko horretako Ingeniaritzan Graduatuta daudenen Estatutuei buruzko txosten hau igorri du 2014ko uztailearen 17ko bilkuran.



I. AURREKARIAK

1.2014ko ekainaren 10ean, Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Saileko Administrazio Erregistroen eta Toki Araubidearen Zuzendaritzaren idazki bat jaso zen Lehiaren Euskal Agintaritzza honetan, Gipuzkoako Peritu eta Ingeniari Tekniko Industrialen eta Adar Tekniko horretako Ingeniaritzan Graduatu direnen Elkargo Ofizialaren Estatutuen (aurrerantzean, ESTATUTUAK) aldaketaren kopia bat erantsita, Lehiaren Euskal Agintaritzak adieraz dezan aldaketa lehia babesteari buruz indarrean dagoen araudiarekin bat datorren ala ez.

II. LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN ESKUMENAK ETA AURRETIKO HAUSNARKETA JURIDIKOAK

2.Otsailaren 2ko 1/2012 Legeak, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoak, 3.3. eta 10.n artikuluetan erakundeari lehia sustatzeko ematen dizkion eskumenak erabiliz egin dugu txosten hau¹.

Eskumen horien helburua da Euskadiko merkatuetan lehia eraginkorra sustatzea (eta, ahal dela, bermatzea). Horretarako, zehatzaileak ez diren neurriak hartzen ditu Lehiaren Euskal Agintaritzak, eta, horrelako neurrien esparruan, besteak beste, administrazio publikoekiko harremanak nabarmentzen dira.

3.Gure antolamendu juridikoak, Profesionalen Elkargoei buruz arautzen duenak, oinarri konstituzionala dauka. Hain zuzen ere, zera ezartzen du EKko 36. artikulua: «Legeak elkargo profesionalen araubidea ezarri eta tituludun lanbideen jardura arautuko du. Elkargoen barne-egiturak eta funtzionamenduak demokratikoak izan beharko dute».

Premisa hau izan behar dugu abiapuntu: Elkargoetako lanbideetan lehia askea behar da, eta lehia defendatzeko 15/2007 Legea bete behar da, bere osotasunean². Lehiari buruzko araudiarekiko mendekotasuna are gehiago nabarmendu da Erkidegoko Zerbitzuen Zuzentaraua aplikatu ostean sortu diren araudi-aldaketa berriei³. Bai estatuan bai EAEn, zuzentarau hori elkargo profesionalen araudia baino lehenagoko erregulazioan oinarritzen da: Elkargo profesionalen buruzko 1974ko estatu-mailako legea, eta 18/1997 Legea, EAeko tituludun lanbideei eta elkargo eta kontseilu profesionalen buruzkoa⁴. Dena dela, une honetan zuzentaruaren transposizioaren

¹ Otsailaren 2ko 1/2012 Legea (EHAA, 29. zenbakikoa, 2012ko otsailaren 9koa).

² Estatuko uztailaren 3ko 15/2007 Legea (BOE, 159. zk. 2007ko uztailaren 4koa).

³ 2006/123/EE Zuzentaraua, 2006ko abenduaren 12koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa.

⁴ Estatuko 2/1974 Legea, otsailaren 13koa, elkargo profesionalen buruzkoa (BOE, 40. zk., 1974ko otsailaren 15koa). Apirilaren 14ko 7/1997 legea, Lurzoruaren eta Elkargo Profesionalen alorreko neurri liberalizatzaileei buruzkoa (BOE, 90. zk., 1997ko apirilaren 15koa). Azaroaren 21eko 18/1997 euskal Legea, tituludun lanbideen, eta elkargo eta kontseilu profesionalen jarduna arautzen duena (EHAA, 237. zk., 1997ko abenduaren 11koa).



estatuko nahiz autonomia-erkidegoetako hainbat araudik aldaketa ugari eragin dituzte arau haietan, eta, horrenbestez, bai eta elkargo profesionalen funtzionamendu-araubidean ere. Kontuan hartzekoak dira, batik bat, Aterki Legea (17/2009), Omnibus Legea (25/2009) edo EAeko 7/2012 Legea⁵.

Lehiaren Euskal Legearen xedea da: «Tituludun lanbideek Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean aurrera daramaten jarduna eta lurralde horretan bertan diharduten Elkargo eta kontseilu profesionalak arautzea, bai eta oinarritzko legerian eta/edo arlo horretako legerian jartzen duena ere kontuan hartu beharko da». Zioen azalpenak dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoak bakarrik dituen eskumenak erabiliz egindakoa da araudia, Espainiako Konstituzioko 139. artikuluari kalte egin gabe betiere. Hain zuzen ere, hau ezartzen da Espainiako Konstituzioaren manamendu horretan: «Agintariek ezin izango dute hartu, ez zuzenean ez zeharka, Espainiako lurralde osoan gizabanakoek askatasunez zirkulatzea eta bertan ezartzea, eta ondasunek askatasunez zirkulatzea oztopatzen duen neurririk».

Horrenbestez, Lehiaren Euskal Legeak ezartzen duenak arautzen du Gipuzkoako Perituen eta Ingeniari Tekniko Industrialen eta Graduko Elkargo Ofiziala; zehazki, 2012an Legea Europako Erkidegoko araudira egokitzeko egindako aldaketen arabera testuak. Arau horren bederatzigarren xedapen gehigarriak ezarritakoari jarraituz, «Elkargo profesionalen araubidearen oinarriak arautzen dituzten manamenduak bere osotasunean edo zati batean jasotzen dituzten lege honetako atalak legegintza-sistematikari jarraitzeagatik sartu dira testu honetan. Horren ondorioz, atal horiek ere aldatutzat joko dira agindu haiek aipatu den oinarritzko araudian berrikusten diren unean».

4. Profesionalen Elkargoek araudiari men egitea ez da estatutuen eta Elkargoen beste arau batzuen (barne-araubideen, prozeduren, araudi deontologikoen...) hitzez hitzeko testuak araudiari men egitea, baizik ere, Elkargoen jardun guztiak araudiari men egitea da. Hori dela eta, estatutuen testua kontuan izan gabe, Elkargoek ezin dute hartu lehia mugatzen duen erabaki edo gomendiorik, ezta horrelako betebeharrak edo eskakizunik ere, lehia defendatzeko legediaren arau-haustea izan daitezkeelako.⁶

5. ESTATUTUei buruzko txosten hau egituratzeko, kategoria materialak hartu ditugu kontuan; hau da, ez diogu jarraitu artikuluen ordenari. Hala ere, argiagoa izan dadin,

⁵ Azaroaren 23ko 17/2009 Legea (BOE, 283. zk., 2009ko azaroaren 24koa), zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteari buruzkoa (*Aterki Legea* izenekoa); eta abenduaren 22ko 25/2009 Legea (BOE, 308. zk., 2009ko abenduaren 23koa), zenbait lege aldatzen dituena zerbitzu-jardueretan aske sartzeari eta aritzeari buruzko Legeari egokitzeko (*Omnibus Legea* izenekoa); eta apirilaren 23ko Eusko Legebiltzarraren 7/2012 Legea (BOE, 84. zk., 2012ko apirilaren 30ekoa), barne-merkatuko zerbitzuei buruzko zuzentaraura egokitze aldera zenbait lege aldatzen dituena, eta tituludun lanbideen eta profesionalen elkargoen eta kontseiluen jardunari buruzko 18/1997 euskal Legea aldatzen duena.

⁶ LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA, Zerbitzuen Zuzentzarauaren transposizioaren ondoren Elkargo Profesionalegi buruzko txostena, Madril, 2011. 22. orria eta hurrengoak.



oinarrizko arauen testuak aipatu ditugu epigrafe bakoitzean, eta adierazi dugu ESTATUTUetako zer manamendutan duten eragina eta zer iritzi dugun.

Halaber, adierazi behar dugu Lehiaren Euskal Agintaritzak bi motatako gomendioak emango dituela txosten honetan: araudiaren balizko urraketa agerian jartzen dutenak eta indarrean dagoen legediaren kontrakoak ez diren baina lehiari behar baino kalte handiagoa egiten dioten pasarteen aldekoak. Bigarren gomendio-motari dagokionean, lehiari kalte txikiagoa egiten dioten aukerak proposatuko ditugu, interes publikoarentzat onuragarriagoak direlakoan.

III. GOGOETA LEHIARI BURUZKO ARAUAK DIRELA-ETA

1 Elkargo bateko kidea izateari buruzko gaiak

A. OBLIGAZIOZKOTASUNA

6. Auzitegi Konstituzionalak Espainiako Konstituzioaren 36. artikulua, Elkargoei buruzko arauketa konstituzionala jasotzen duenak, interpretatu eta honako hau ezarri du: «Elkargo bateko kide izan beharra konstituzionalki zilegi izango da, interes publiko bati zerbitzua emateko beharragatik justifikatuta dagoenean»⁷. Horrenbestez, Auzitegi Konstituzionalak **legegilea** gaitzen du, hark, egokitzat jotzen duenean, Elkargo profesionaletan elkartzeko askatasuna eta lanbidea aukeratzeko askatasuna mugatu ditzan —bereziki elkargoko kide egitera behartuz—, betiere lanbide jakin batzuekin loturiko interes publikoek hala justifikatzen dutenean⁸.

Aterki Legeak, hau da, zerbitzuei buruzko 2006/123 Zuzentarauaren transposizioa egin zutenetako batek, Elkargoko kide ezinbestean egin beharra baimentzen du, salbuespen gisa, baldintza hauek aurkezten direnean:

- Ordena publiko, segurtasun publiko, osasun publiko edo ingurumena babesteko arazoak direla-eta, hala justifikatuta egotea. (12. artikulua)
- Eskakizuna diskriminatzailea ez izatea (hau da, zuzenean nahiz zeharka, hura diskriminatzailea ez izatea, eskumena duen agintaritzaren kokapenaren edo nazionalitatearen arabera). (5. artikulua)

⁷ Auzitegi Konstituzionalaren 89/1989 Epaia, maiatzaren 11koa. Zentzu berean, Auzitegi Konstituzionalaren abenduaren 15eko 330/1994 Epaia kontsultatu daiteke, beren borondatez atxikitzea ahalbidetzen duten Elkargoak baimentzen dituena. Era berean, Auzitegi Konstituzionalaren apirilaren 23ko 76/2003 Epaia dugu, Toki Administrazioiko Idazkarien, Kontuhartzaileen eta Diruzainen Elkargoei dagokienean Elkargoko kide nahitaez izatea beharra konstituzioaren aurkakotzat jotzen duena, konstituzionalki garrantzitsuak diren helburu edo eginkizun publikoak ez dituztelako garatzen lanbidearen antolamenduaren arabera, hain zuzen.

⁸ Ikus, horiek ere gure mugetatik kanpo, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 1983ko otsailaren 10eko Epaia. *Batekoa*. Le Compte, Van Leuven eta De Meyere Belgikaren aurkako auzian, edo 1993ko ekainaren 30eko epaia, Sigurdur A. Sigurjónsson Islandiaren aurkako auzian (A seriea, 264. zenbakia); horietan, neurritz kanpokotzat jotzen da taxi-gidari bati taxi-gidarien erakunde batera atxikitzeko obligazio legala.



- Beharrezkoa izatea (hau da, interes orokorreko premiazko neurriren batek justifikatzea). (5. artikulua)
- Haren helburua lortzeko egokia izatea (hau da, nahi den helburua lortu ahal izateko Elkargoko kide egitea tresnarik onena izatea, eta beraz, emaitza bera lortzea ahalbidetuko duen neurri hoberik ez izatea). (5. artikulua)
- Araubide hori ezartzen duen Legean behar adina arrazoi egotea. (5. artikulua).

Euskal Autonomia Erkidegoan, lanbide batean jarduteko Elkargo bateko kide izatea eskatzeko aukera hori Lehiaren Euskal Legeko 30.1 artikulua arautzen du. Xedapen horrek hau ezartzen du: «Elkargoetako lanbideetan jarduteko ezinbesteko baldintza da dagokion Elkargoko kidea izatea, **dagokion legeak horrela jasotzen duenean**»⁹. Horrenbestez, elkargo bateko kide izateko obligaziozkotasuna lege-mailako arauen batean jasotzen denean bakarrik jo ahal izango da egokitzat.

Gainera, Elkargo bateko kidea izateko obligazioak lege-mailako arauen batean jaso beharko dira, hark lehia defendatzeko Legearen 4. artikulua babesa izan dezan¹⁰.

Oro har, Omnibus Legeak lanbidera sartzeko eta lanbide batean jarduteko murrizketak ezabatu zituen; baina, etorkizuneko araudi baten esku utzi zuen jarduera-erreserben eta Elkargo bateko kide izateko beharraren erreforma¹¹. Une honetan, profesionalen Elkargoei buruzko Legearen 3.2 artikulua araberan, Estatuko lege batek hala ezartzen duenean bakarrik eskatu ahal izango da Elkargo bateko kide izatea lanbide batean jarduteko. Dena den, Elkargoko kide izatea nahitaezkoa den lanbideak legez arautzen ez diren bitartean, Omnibus Legearen laugarren xedapen iragankorri jarraikiz hura indarrean sartu zen unean indarrean zirenak finkatu egin dira. Horregatik, aldi baterako, lehendik zeuden Elkargoko kide izatea beharrezkoa den egoeren legezkozkotasuna mantendu da, maila egokia ez duten arauan ezarrita egon arren.

⁹ 2013ko urtarrilaren 17ko Auzitegi Konstituzionalaren 3/2013 Epaia (BOE. 37. zk., 2013ko otsailaren 12koa), Andaluziako profesionalen elkargoei buruzkoa. Arau horrek ezartzen du Estatuaren berariazko eskumena dela derrigorrean Elkargoko kide egin behar izatea edo salbuespenak finkatzea. Zentzu berean agertzen dira Auzitegi Konstituzionalaren 46/2013 Epaia (Extremadurako legeari dagokionean) eta Auzitegi Konstituzionalaren 50/2013 Epaia (Asturiasko legeari dagokionean).

¹⁰ Aipatutako 4. artikulua horretako «Legeak salbuetsitako jokoerak» epigrafeak honako hau dio: «Lehiaren defentsaren arloko erkidegoko xedapen behin-behineko aplikazioari kalterik gabe, kapitulu honetako debekuak ez zaizkio aplikatuko lege baten aplikazioaren ondorio diren jokoerei». Hala ere, honela jarraitzen du artikulua: «Kapitulu honetan aipatzen diren debekuak lehia murrizten duten egoera jakin batzuei ezarriko zaizkie, hau da, administrazioaren beste ahalmen batzuk gauzatzearen ondorio direnei, edo botere publikoen edo enpresa publikoen jardueraren ondorio direnei, lege-babesik gabe eginez gero».

¹¹ Honela dio arau horren laugarren xedapen iragankorrak: «Hamabi hilabeteko epean, Gobernuak lege-proiektu bat igorriko die Gorte Nagusiei, eta bertan, elkargo bateko kide izatea nahitaezkoa den lanbideak zehaztuko dira, baina lege-proiektu hori ez da oraindik igorri. Proiektu horretan Elkargo bateko kide izan beharraren jarraitutasuna aurreikusi beharko da hura jardun profesionalaren kontrolerako tresna eraginkorra den kasuetan, hartara zerbitzuen hartzaileak hobeto babesteko, bai eta interes publiko bereziko gaiak modu larrian edo oso larrian kaltetu daitezkeen jardueretan ere, adibidez pertsona fisikoen osasunaren babesa eta osotasun fisikoa edo segurtasun pertsonala edo juridikoa kaltetu daitezkeen kasuetan».



7. Ingeniaritza Teknikoaren Kontseilu Orokorren eraketa 1956ko ekainaren 22ko Dekretuan oinarritu zen. Izan ere, dekretu horren arabera, Peritu Industriaren Elkargoen eraketa baimendu zen.¹² Baimen horrek zehaztu zuen, batetik, Peritu Industrialen Elkargoak sortzea eta, bestetik, Peritu Industrialen Elkargoetako lehenengo Estatutu Orokorra onartzea¹³.

Urtarrilaren 24ko 104/203 Errege Dekretuko 7. artikulukoak, Peritu eta Ingeniari Tekniko Industrialen Elkargo Ofizialetako Estatutuak eta horien Kontseilu Orokorra onartzen dituenak hau ezartzen du: «(...) Lanbidean jarduteko, bai era librean bai besteren konturako edo edozein eratan, nahitaezkoa izango da dagokion Elkargoan sartuta egotea.» Beraz, aipatutako obligazioaren oinarria ez da Lege bat, baizik eta erregelamendu-mailako Errege Dekretu bat.

8. ESTATUTUetan Elkargo bateko kide izateko obligaziozkotasuna manu hauetan agertzen da :

2. artikulua. Elkargokideak

2.1. Gipuzkoako Peritu eta Ingeniari Tekniko Industrialen eta adar horretako Ingeniaritzan Graduatuen Elkargoak bere baitan bilduko ditu Peritu Industrial, Ingeniari Tekniko Industrial eta Ingeniaritza Industrialari dagozkion irakaskuntzako alorretan Graduko Ingeniariak diren guztiak. Horiek guztiek Elkargokoak izatea eskatu badute eta Estatutu hauetan eskatzen diren betekizunak betetzen badituzte, eta nahitaez Elkargokoak izan beharko dute, lanbide honetan aritzen direnek eta Elkargoak hartzen duen lurralde-eremuan aritzen badira profesionalki. Betiere, horiek guztiek Estatuak egindako, homologatutako edo aitortutako eta izaera ofiziala duen nahiz lurralde nazional guztian balio duen titulua badute. Elkargoak ondorengoak egongo dira: adar industrialeko Ingeniaritzan Gradutuak direnak, adar horretako Ingeniaritza Teknikoetako (azaroaren 27ko 1497/1987 Errege Dekretua baino lehenagoko ikasketa-planetara egokitutakoak direnak edo urriaren 26ko 1462/1990 Errege Dekretuen arabekoak eta azaroaren 20ko 1402/1992, 1403/1992, 1404/1992, 1405/1992 eta 1406/1992 Errege Dekretuen arabekoak direnak) tituludunak eta Peritu Industrialak. Betiere, dagokien Estatuak aitortutako titulu ofiziala badute eta Elkargoan sartzeko eskatu badute eta Estatutu hauek eskatzen dituzten betekizunak betetzen badituzte.

9. Elkargoko kide izateko obligaziozkotasunak elkargokide egiten diren eta titulu jakin bat duten profesionalentzat erreserbatzen du jarduera. Lanbidearen jarduera Elkargoko kide diren profesionaleri bakarrik erreserbatzeak, sartzeko oztopo handiak eragiten dizkie hirugarrenei, eta printzipioz, horrek beste lehiakideak eta kontsumitzaileak kaltetzen ditu¹⁴.

Egiaztatu da ESTATUTUetan obligaziotzat jotzen dela Elkargoko kide izatea ingeniari tekniko industrialaren lanbidean jarduteko.

¹² BOE, uztailaren 22koa.

¹³ Industria Ministerioaren 1957ko urriaren 16ko Aginduaren (BOE, 1958ko martxoaren 1ekoa) bidez.

¹⁴ LBNaren txosten aipatua, 42. or.



Esandako guztitik ondoriozta daiteke, haatik, aldi baterako besterik ez dagoela indarrean ingeniari tekniko industrialek Elkargoko kide izateko obligazioa, *Omnibus* legearen aldi baterako laugarren xedapena aplikatuz gero; zeren, lege-mailako estatuko arau batean obligaziozkotasun hori jasota ez badago ere, sendotu egin da 104/2003 Errege Dekretuko 7. artikulua indarraldia Elkargoko kide izateko obligazioa jasotzen baitzuen.

Dena den, araudia aldatu aurretik gauzatzen diren elkargo-estatutuen aldaketa guztiek Elkargoko kide izateko obligazioari buruzko erreferentziak saihestu behar dituzte edo, bestela, adierazi beharko da obligazio horrek legediarekiko maila egokia ez duen arau batean ezarrita dagoenari egiten diola erreferentzia eta arau hori behin-behinekoa dela, eskakizun hori lege-mailako arau batean txertatu bitartean¹⁵.

Horregatik, berariaz aipatu Elkargoko kide izateko obligazioa Errege Dekretu mailako arau batean jasota dagoela eta, beraz, *Omnibus* legearen laugarren xedapen iragankorraren ondorioz, haren indarraldia ere iragankorra dela. Kasu honetan, Europako Batasunaren Zerbitzu Zuzentarauaren puntu horren transposizioa egiten den unean Elkargoak bere Estatutuak aldatu beharko lituzke.

B. Titulazioa

10. Bolonia izeneko prozesuaren ondorioa izan zen «titulazioen katalogoa» desagerraraztea eta unibertsitateek unibertsitate-titulu berriak sortzeko aukera ekartzea.

2010. urtetik unibertsitateek emango eta jaulkiko dituzten irakaskuntzak eta tituluak sortu eta proposa ditzakete, Gobernuak aurretik ezarritako katalogo batekiko loturarik gabe.¹⁶

¹⁵ LBNren txostena, 44. or.

¹⁶ Apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoa Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa aldatzen duena, BOE, 89. zk., 2007ko apirilaren 13koa:

“35. artikulua. Titulu ofizialak

1 Gobernuak ezarriko ditu gidalerroak eta baldintzak izaera ofizialeko eta lurralde-eremu guztian balio duten tituluak lortzeko, eta titulu horiek unibertsitateko Errektoreak emango ditu Erregearen izenean.

2 Unibertsitateek irakaskuntza ofizialak emateko eta horiei dagozkien titulu ofizialak emateko, lurralde nazional osoan balio dutenak, Autonomia Erkideagoari dagokion baimena izan beharko dute, bertako legerian eta Lege honetako 8. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Unibertsitateen Kontseiluak proposatutako ikasketa-planak Gobernuak ezarritako gidalerroak eta baldintzak betetzen dituela egiaztatzea lortu beharko du. Prozedurak unibertsitateen autonomia akademikoa zaindu beharko du.

3 Autonomia Erkidegoaren baimenaren eta Unibertsitateen Kontseiluak ematen duen ikasketa-planaren egiaztatzearen ondoren, Gobernuak ezarriko du tituluaren izaera ofiziala eta unibertsitateen, zentroen eta tituluen Erregistroan jartzea aginduko du.



11. ESTATUTUetako 2. artikuluan Elkargoko kidea izateko bidea ematen duten titulazioen zerrenda zehatza dago:

2. artikulua. Elkargokideak.

2.1 [...] Elkargoak ondorengoak egongo dira: adar industrialeko Ingeniaritzan Graduatuak direnak, adar horretako Ingeniaritza Teknikoetako (azaroaren 27ko 1497/1987 Errege Dekretua baino lehenagoko ikasketa-planetara egokitutakoak direnak edo urriaren 26ko 1462/1990 Errege Dekretuen araberrakoak eta azaroaren 20ko 1402/1992, 1403/1992, 1404/1992, 1405/1992 eta 1406/1992 Errege Dekretuen araberrakoak direnak) tituludunak eta Peritu Industrialak. Betiere, dagokien Estatuak aitortutako titulu ofiziala badute eta Elkargoan sartzea eskatu badute eta Estatutu hauek eskatzen dituzten betekizunak betetzen badituzte.

12. ESTATUTUetako 2. artikuluan, Elkargoko kide izateko gaitzen duten tituluaren zerrenda zehatza jasotzen da. Atal honetan dagoen idazketa ez bada aldatzen, Elkargoko kide izateko gaitzen duten unibertsitate-titulu zehatza daukaten profesionalentzako jarduera-erreserba egingo litzateke, jarduera profesional horretan jarduteko behar adina gaitasun duten bestelako profesionalen kaltetan. Baina, azken horiek artikulua horretan aipatutako titulaziorik ez dutenez, ez dute izango Elkargoko kide izateko biderik. Murrizketa hori lehiarako oso kaltegarria den barrera bat da Elkargoko kidea izateko obligazioa nahitaezkoa den lanbideetan aritzeko ustezko lanbideak baleude, kasu honetan bezala (gutxienez, aldi batean, Elkargoko kide izateko obligazioa duten lanbideetan aritzeko lanbideak zein diren zehazten dituen legea aldarrikatzen ez den bitartean, Omnibus Legeko laugarren xedapen iragankorrean xedatutakoaren arabera)

13. Aurrekariak direla-eta, proposatzen da artikuluko idazketa aldatzea unibertsitate-irakaskuntza ofizialeko antolamendu berrira egokitzeko. Horrela, ez dira alde batera utziko jarduera profesional horretan jarduteko behar adinako gaitasun teknikoak duten tituludunak.

Horretarako, iradokitzen da idazketa hau edo antzekoa izatea: «Ingeniari tekniko industrialaren lanbidean jarduteko egokiak diren beste unibertsitate-titulu batzuk»

2. Elkargokidetze bakarra estatuko lurralde osorako.

14. Nahiz eta, logikoa denez, EELk ez duen kontu hori berariaz arautzen, haren 39.4 artikulua dio «Elkargoek ezin diete exijitu inongo komunikaziorik edo gaikuntzarik Elkargoa daukaten lurraldetik kanpo lan egiten duten kideei, ez eta jasotzen dituzten prestazioengatik, elkargoaren kuotak berak ordaintzen ez dituela-eta, beren kideei normalean eskatzen dizkieten ordain ekonomikoez aparte beste ordainik ere exijitu». Halaber hartu behar dira Espainiako Konstituzioaren 139. artikulua eta EPLaren 3.3 artikulua, zeinak, Europako Batasuneko arauari jarraikiz, xedatzen baitu ezen baldin

4 Gobernuan tituluaren izaera ofiziala onartu ondoren, Errektoreak aginduko du ikasketa-plana Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Autonomia Erkidegoko aldizkari ofizialean argitaratzea.»



eta profesio bat lurralde-elkargotan antolatzen bada, orduan nahikoa dela horietako batean kidetzea lurralde nazional osoan jardun ahal izateko.

15. ESTATUTUetako 3. artikuluko 3. paragrafoan arautzen da gai hori:

3. artikulua. Elkargoko kide izateko eskaerak

(...)

Hala ere, aurreko paragrafoan adierazitakoari jarraiki, Gipuzkoako Perituen, Ingeniari Tekniko Industrialen eta adar industrial horretako Ingeniaritzan graduatuak direnen Elkargoak ez du eskatuko Elkargo horretan sartzea ezta Gipuzkoako Lurralde Historikoan jarduteko gaikuntzarik ere Estatuko lurraldean dagoen Peritu Industrialen, Ingeniari Tekniko Industrialen eta Graduako Ingeniarien Elkargo batekoak (egoitza profesional bakarra edo nagusia izango dena) diren kideei. Gainera, Elkargoak ezingo diete eskatu inolako kontraprestazio ekonomiko desberdinik Elkargo honek onuradun diren zerbitzuak jasotzeagatik kideei normalean eskatzen dizkieten kontraprestazioekiko eta zerbitzu horiek ez badaude estalita Elkargoko kuotarekin. Hori guztia Estatuko edo Autonomiako Estatutu Orokorrek Gipuzkoako Peritu eta Ingeniari Tekniko Industrialen eta adar industrial horretako Ingeniaritzan Graduatuak direnen Elkargoari Gipuzkoako Lurralde Historikoan profesionalki jarduteko jakinarazpenaren obligazioari buruz ezartzen dutenari kalterik egin gabe.

16. 3. artikuluko 3. paragrafoak Estatuko edo Autonomiako Estatutu Orokorren bidez, profesionalki jarduteko Elkargoari jakinarazteko obligazioa eskatu ahal izateko jasotzen duen aukera hori ezabatu egin behar da.

3. Ordainsariak

A. Ordainsariak kobratzeko elkargo-zerbitzua

17.EEL ek 24.f artikuluan dio Elkargoaren berezko eginkizuna dela, besteak beste, «*Hartzekoak, sariak eta ordainsariak kobratzea, Elkargoko kideek eskatuz gero eta, betiere, Elkargo bakoitzeko estatutuetan zehazten diren baldintzetan*». EPLaren 5.p artikulua araber, elkargoaren eginkizuna da, halaber, «arduratzea, elkargoaren kideek modu askean eta berariaz eskatzen dietenean bakarrik, haien hartzekoen, sari en edo ordainsari profesionalen kobrantzaz, betiere, Elkargoak horretarako zerbitzu egokiak sortuak dituenean eta Elkargo bakoitzaren Estatutuetan zehazten diren baldintzetan».

18.ESTATUTUetan, 9 eta 47. artikuluek arautzen dute gaia.

9. artikulua. Elkargoaren eginkizunak

Honako hauek dira elkargoaren funtzioak:

f) Kideek hala eskatzen dutenean, beraien ordainsariak jasotzeko egin beharreko jarduketetan kideei laguntzea.

47. artikulua

Kideak, hitzartutako ordainsariak dituen enkarguaren inprimakia badu eta behar bezala beteta badago proiektua aurkezten duenean, eskatzen badu ordainsari horien kobrantza Elkargoak egitea, horrela adierazi beharko du espresuki. Elkargoak, kasu



guztietan, kobrantza egiteko behar diren eginbideak egingo ditu eta zenbatekoa kidearen eskura jarriko du.

19.Hori dela eta, gogora ekarri behar da Elkargoaren jardunak ez duela, ez zuzenean, ez zeharka, prezioak finkatzea edo orientatzea helburu izango. «Ordainsariak kobratzeko elkargo-zerbitzua» izeneko Elkargoek beren kideen jarduera kontrolatzeko tresna posibletzat jo da. Horregatik, zerbitzu hori ezin da nahitaez eta ezinbestean erabiltzekoa izan; aitzitik, profesionalak libre eta berariaz eskatzeko aukera izan behar du, ESTATUTUetako idazketak ondo jasotzen duen bezala.

Lehiarako Batzorde Nazionalak bere txostenean ezartzen hau zuen: «Ordainsariak Elkargo profesionalen bitartez kobratzeak lehia murrizteko arrisku handia dakar.» Alde batetik, kideen artean alde aurretik ordainsarien prezioa adosteko, merkatua partitzeko edota konpentsatzeko itun bat badago, orduan kobrantza zentralizatzea kontrol-mekanismo bilaka liteke, aztertzeke ea profesionalak itun hori betetzen duten ala ez. Bestalde, esanez badago ere, beren kobrantza Elkargoaren bitartez bideratzen dituzten profesionalen kopurua handia bada, horiei buruzko informazioa zabaltzeak lehiaren murrizketak egotea erraz lezake»¹⁷.

B. Ordainsariei eta prezioak zeharka zehazteari buruzko txostenak

20.EELaren 24. artikuluan ezartzen denaren arabera, elkargoen berezko funtzioak dira, halaber «Irizpide orientagarriak prestatzea, kostuak tasatzeko eta abokatuen kontuei zin egiteko besterik ez. Irizpide horiexek baliatuko dira zerbitzu-sariak eta eskubideak kalkulatzeko, laguntza juridiko doakoari dagozkion kostuak tasatu ahal izateko.» (e letra) eta «Zerbitzu-sariak eztabaidagai dituzten prozesu judizial eta administrazio-jardunbideetan txostenak ematea» (f letra, *in fine*)¹⁸.

Omnibus legeak ezabatu egin zuen EPLaren 5. artikulua Elkargo Profesionalei esleitzen zien funtzio hura –ordainsari orientagarriak ezartzea, hain zuzen–, eta berariaz debekatu zuen halakorik egitea, 14. artikuluan¹⁹. EPLaren Xedapen Gehigarrian dator salbuespen bakarra, zeinak aukera ematen baitu Elkargo profesionalak «irizpide orientagarriak» (ez baremoak) prestatzea, kostuak tasatzeko eta abokatuen kontuei zin egiteko besterik ez. Irizpide horiexek baliatuko dira ordainsariak eta eskubideak kalkulatzeko, laguntza juridiko doakoari dagozkion kostuak tasatu ahal izateko.

¹⁷ LBNaren txostena, 73. or.

¹⁸ EPLaren 5.o artikuluan «zerbitzu-sari profesionalak eztabaidatzen diren prozedura judizial edo administratiboen berri emateko» funtzioa aipatzen da.

¹⁹ EPLaren 14. artikulua: Ordainsariei buruzko gomendioen gaineko debekua. «Elkargo Profesionalek eta haien mendeko erakundeek ezin izango dute ordainsari profesionali buruzko baremo orientagarriak, gomendiorik, jarraibiderik, ez araurik jaulki, laugarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoa izan ezik».

**21. ESTATUTU**etan gaia 9. artikuluko e) eta g) letretan arautzen da:**9. artikulua. Elkargoaren funtzioak**

Honako hauek dira elkargoaren funtzioak:

e) Ordainsarien baremoak ezartzea, nahiz eta orientagarriak besterik ez izan.

g) Peritu Industrialek, Ingeniari Tekniko Industrialek eta Graduako Ingeniari Teknikoek beraien jarduera profesionalengatik jaso beharreko ordainsariak aplikatzean sor daitezkeen dudak interpretatzea, eta are gehiago, horretarako, ordainsari profesionalei buruzko gaia eztabaidatzen diren prozesu judizialean eta prozedura administratiboetan egokiak diren txostenak egingo ditu Elkargoak

22. Lanbidean lehia askeko erregimenean jardun behar da (horrek esan nahi du ordainsariak era askean ezar daitezkeela). Horregatik, Elkargoak ez luke erreserbatu behar ordainsariak interpretatzeko funtziorik, are gehiago, kontuan izanda izan dezakeen arriskua elkargoko kideek beren lehiakideak diren prezioen politika jakiteak. Horrek ordainsarien zenbatekoa bezeroari kobratzean lerrokatze bati mesede egin diezaioke, lehiaren ezaugarri garrantzitsuenetako baten eta kontsumitzaileari onura gehien ekartzen dion kaltetan, prezioaren kaltetan²⁰.

Aurrekariengatik, g) atalaren lehenengo zatia **kentzea** proposatzen da: «Jarduera profesionalengatik jaso beharreko ordainsariak aplikatzean sor daitezkeen dudak interpretatzea»

23. Ordainsari orientagarrien «baremoak» ezartzeari dagokionean, EPLak berariaz debekatzen duen funtzio bat da. EPLaren Xedapen Gehigarrian dator salbuespen bakarra, zeinak aukera ematen baitu Elkargo profesionalek «irizpide orientagarriak» (ez baremoak) prestatzea, kostuak tasatzeko eta abokatuen kontuei zin egiteko besterik ez. Irizpide horiek baliatuko dira ordainsariak eta eskubideak kalkulatzeko, laguntza juridiko doakoari dagozkion kostuak tasatu ahal izateko.

Irizpide orientagarriak honela definitzen dira: «Kostuak tasatzeko aintzat hartu behar diren elementuak»²¹. Ezin da «irizpidetzat» hartu elementu horiek kasuan-kasuan aplikatuta lortzen den emaitza kuantitatiboa. Kasu horretan prezio edo ordainsaritzat hartu behar genuke hori, eta, ondorioz, debekatutako jardute gisa.

Ondorioz, 9. artikuluko e) lettran jasotako funtzioaren idazketa **ezabatu edo aldatu** egin beharko litzateke indarrean dagoen araudira egokitzeko.

4. Onespena

24. Azaroaren 21eko EELaren 24. artikulua arautzen ditu elkargoen berezko funtzioak, eta i) lettran, funtzio hau ezartzen du: «Lanbide teknikoei dagokienean, bakoitzaren

²⁰ EPLaren 2.1. artikulua: «Lehia askeko erregimenean egingo dira Elkargoko lanbideak, eta Lehiaren Aldeko Legeari eta Lehia Desleialaren Legeari lotuta egongo dira zerbitzuen eskaintzari eta horien prezioak ezartzeari dagokienean».

²¹ LBNaren txostena, 71. or.



eskumen-esparruko lan profesionalak onartzea **bezeroek** (administrazio publiko gisa diharduten administrazioak barne) **hala eskatzen dutenean bakarrik**, edo **indarrean dagoen araudiak** hala agintzen duenean. Onespenaren **objektua** da gutxienez lana egin duena nor den eta zer gaikuntza duen ikustea, eta lan profesional horren dokumentazioa zuzena eta formaz egokia dela ziurtatzea, dena delako lan horri aplikatzekoa zaion araudiaren arabera. Onespenak oso argia izan behar du bere helburuari, kontrolatu diren kontuei eta Elkargoak hartzen duen erantzukizunari buruz. Baina, onespenean ez dira egongo inola ere ez ordainsariak ez eta kontratuaren baldintzak ere, bai bata eta bai bestea aldeek adostutako akordioaren barruan finkatu beharko baitira. Onespenak ez du jasoko lan profesionalaren elementu fakultatiboen kontrol teknikoa. Elkargoaren onespena ezinbestekoa den kasuetan, onespenaren kosteak arrazoizkoa izan behar du, ez gehiegizkoa ezta diskriminatzailea ere. Elkargoek argitaratu egin behar dute onespenaren kostua, eta telematikoki izapidetu ahal izango da»²².

25. ESTATUTUetako 9, 46 eta 52. artikuluek arautzen dute gaia.

9. artikulua. Elkargoaren funtzioak

Honako hauek dira Elkargoaren funtzioak:

m) Estatutu hauetako 45. artikuluan ezarritakoarekin bat, Elkargoko kideen lan profesionalak onartzea, egiaztatzea edo erregistratzea.

12. artikulua. Ohiko baliabideak.

5.- Elkargoak profesionalen lanak onesteko eskubideagatik eskatzen duen ehunekoa.

16. artikulua. Elkargokideen betebeharrak.

i) Lanbidearen jardunean izenpetzen duen dokumentazio guztia Elkargoak onetsi, erregistratu eta egiaztatu behar du, betiere, hori guztia lege-mailako arau batek edo betekizun hori espresuki ezartzen den Erregelamendu batek eskatzen duenean. Horrela, obligazio hori ez betetzea Estatutu hauetan ezarritako diziplina-erregimenean dauden falta larritzat joko da.

46. artikulua.

Gobernu Batzordearen funtzio propioa izango da edo Lanbidean Modu Librean Jarduteko Batzordearen bidez egiten den funtzioa edo Elkargoaren Idazkaritza Teknikoaren bidez egiten den funtzioa Peritu Industrialek, Ingeniari Tekniko Industrialek edo Graduako Ingeniariek izaera ofizialeko edo pribatuko Erakundeetan aurkeztu behar dituzten lanen eta dokumentuen legalizazioa, erregistroa eta onespen.

Onespenak izango du, kasu guztietan, behar bezalako elkargoko kide den tituludun teknikariaren identitatea eta gaikuntza, erregelamenduen eta jardute profesionalari nahiz lurraldeko lehiari buruzko Elkargoko hitzarmenen betetzea, eta lanaren barnean dagoen dokumentazioaren zuzentasuna eta osotasun formala. Zehazki, zehaztapan teknikoei eta aurkezpen-baldintzei buruzko araudia modu formalean betetzen dela bermatuko du, baita gauzatzeko aurrekontuaren egiazkotasuna ere. «Onespenak ez dakar ez ordainsaririk ez kontratuko gainerako baldintzarik; izan ere, horiek alderdiek askatasunez erabaki dezaten uzten dira.

52. artikulua. Arau-hausteen tipifikazioa

Elkargoko Gobernu Batzordearen diziplinako zigorrak izan daitezkeen arau-haustek arin, larri edo oso larri gisa sailkatzen dira.

²² Hala dio EPLaren 13.1 artikulua ere.



(...)
b) Arau-hauste larriak hauek dira:
(...)
b.6 Elkargoko onespeneraren menean ez jartzea bere lanbidearen jardunean Elkargoko kideak izenpetzen duen dokumentazioa, betiere, dokumentazio hori eskatzeko betekizuna espresuki ezartzen duen lege-mailako araudi batek edo Erregelamendu batek hala eskatzen duenean.

26. Aurretiaz nabarmendu behar da 45. artikulura bidaltzen duela 9. artikuluko m) letrak, baina, errata bat da. Izan ere, artikuluko horrek Kontuak Berrikusteko Batzordea arautzen du. 46. artikulura bidali beharko luke; horregatik, **aldatu** egin beharko litzateke.

A. Onespenerako gaitasuna.

27. Abuztuaren 5eko 1000/2010 Errege Dekretuko 3. artikulua, Elkargoaren Nahitaezko onspenerari buruzkoak²³ (aurrerantzean, *Onspenei buruzko Errege Dekretua*) ezartzen du proiektu partzialak dituzten lanen bisen kasuan, nahikoa dela gai nagusian eskumena duen Elkargoak egitea bere osotasunean²⁴.

Onspenei buruzko Errege Dekretuko 5. artikuluko 1. atalak xedatzen du lana sinatzen duen profesionala gai nagusian eskumena duen Elkargora zuzenduko dela, eta eskumena hainbat Elkargo profesionalak badute, onspena horietako edozeinetan eskuratu ahal izango da.

Azkenik, onspenei buruzko Errege Dekretuko 5. artikuluko 2. atalean hau hizpatzen da: «Estatuaz beherako eremuko Elkargo profesionalak badaude horietako edozeinetako onspena lortu ahal izango da²⁵.»

²³ Abuztuaren 5eko 1000/2010 Errege Dekretua, elkargoaren nahitaezko onspenerari buruzkoa (BOE, 190. zk. 2010eko abuztuaren 6koa).

²⁴ Onspenei buruzko Errege Dekretuaren 3. artikulua: Proiektu partzialak dituzten lanen onspena: «2. artikuluan aurreikusitako obligazioa betetzeko nahikoa izango da artikuluko horretan jasotako lan profesionalak, nahiz eta proiektu partzialen bidez garatu edo egin, behin bakarrik egotea onetsita eta kide profesional batek (lanaren gai nagusian gaituta egon beharko du 5. artikuluan aurreikusitakoarekin bat) onestea, eta ez da beharrezkoa izango lan profesionala osatzen duten dokumentuen onspena partziala»

²⁵ Onspenei buruzko Errege Dekretuaren 5. artikulua: Lan profesionalak onesteko edo horien onspena egiteko eskumena duen Elkargo profesionala. «1. Nahitaezko elkargoko onspena lortzeko, 2. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, lana sinatzen duen profesionala lan profesionalaren gai nagusian (profesionala lan osoko gai nagusi horretan arituko da) eskumena duen Elkargora joango da.» Gaian eskumena duten hainbat Elkargo profesional badaude, profesionalak onspena horietako edozeinetan lortu ahal izango du. Ondorio horietarako, ulertzen da 2. artikuluko b) eta c) letretan aipatutako eraikuntza-obraen amaierako ziurtagirietako gai nagusiaren baitan obra-zuzendaritza eta obra gauzatzeko zuzendaritza daudela. Horregatik, nahikoa izango da gai horretan eskumena duen Elkargo baten onspenak. 2. «Elkargo bat eremu nazionalaz beherako Elkargo profesionalen arabera egituratzen bada, onspena nahitaez izan behar duen lan bateko profesional sinatzaileak horietako edozeinetan lortu ahal izango du. Profesionalak onspena atxikita dagoen Elkargoaz bestelako batean

**28. ESTATUTUetan 46. artikuluan arautzen da gai hori:****46. artikulua.**

Gobernu Batzordearen funtzio propioa izango da edo Lanbidean Modu Librean Jarduteko Batzordearen bidez egiten den funtzioa edo Elkargoaren Idazkaritza Teknikoaren bidez egiten den funtzioa Peritu Industrialek, Ingeniari Tekniko Industrialek edo Graduako Ingeniariek izaera ofizialeko edo pribatuko Erakundeetan aurkeztu behar dituzten lanen eta dokumentuen legalizazioa, erregistroa eta onespren.

Onespenak izango du, kasu guztietan, behar bezalako elkargoko kide den tituludun teknikariaren identitatea eta gaikuntza, erregelamenduen eta jardute profesionalari nahiz lurraldeko lehiari buruzko Elkargoko hitzarmenen betetzea, eta lanaren barnean dagoen dokumentazioaren zuzentasuna eta osotasun formala. Zehazki, zehaztapen teknikoari eta aurkezpen-baldintzei buruzko araudia modu formalean betetzen dela bermatuko du, baita gauzatzeko aurrekontuaren egiazkotasuna ere. «Onespenak ez dakar ez ordainsaririk ez kontratuko gainerako baldintzarik; izan ere, horiek alderdiek askatasunez erabaki dezaten uzten dira.

29. Elkargoak emango dituen onespenei buruz nabarmendu behar da, elkargoak ez dizkiela soilik Peritu Industrialek, Ingeniari Tekniko Industrialek eta Graduako Ingeniariek egindako lanei eman behar.

Proiektu partzialak (ingeniaritza teknikoaz bestelako titulazio bat duen profesional batek egin ahal izan dituenak) dituzten lanak baleude nahikoa da onespena, bere osotasunean, gai nagusian eskumena duen Elkargoak egitea.²⁶

Onspena duten proiektuetako gaien eskumena hainbat Elkargo profesionalak badute, lana egin duten profesionalak era berean eska dezakete onspena horietako edozeinetan.

B. Onspena exijitzea

30. EELaren 24.i artikulua xedatutakoaren arabera, bezeroek beren borondatez eta berariaz eskatzen dietenean edota indarrean dauden arauak hartara behartzen dutenean baizik ezin izango dituzte Elkargo profesionalak lan profesionalen onspena eman.

Gaur egun kontu hori dela-eta indarrean dagoen araua abuztuaren 5eko 1000/2010 Errege dekretua da, Elkargoaren Onspenen Obligaziozkotasunari buruzkoa (aurrerantzean, Onspenen Errege Dekretua). Hartan erabaki zen elkargoaren onspena

eskatzen badu, Elkargo Profesionalari buruzko otsailaren 13ko 2/1974 Legean aurreikusitako komunikazio-mekanismoak eta kooperazio administratiboko sistemak erabili ahal izango dituzte Elkargoak».

²⁶ Hitzarmen bidez ebatzitako LBNaren S/0002/07 espedientean, Espainiako Arkitektoen Goi Kontseiluarena, Kontseiluak hartutako erabaki murriztailea aztertu zen; haren arabera, arkitekto edo arkitekto tekniko batek sinatu behar zituen segurtasun- eta osasun-azterlanak, beste teknikari guztiek sinatutako onspenak ukatuz. Hitzarmen bidez hartutako erabakian, azterlanek horretarako eskumena duen edozein teknikariaren sinadura izan zezaketela ebatzi zen, betiere horien eskumenak eta espezialitateak kontuan hartuta.



nahitaez egin behar zaien lan profesionalen zerrenda, lan horien eta pertsonen osotasun fisikoa eta segurtasunaren artean zuzeneko kausalitatea zegoelako eta helbururako modu egokiena zelako. Zerrenda horretan bederatzi jarduera bildu dira, eta Errege Dekretuaren 2. artikuluan daude jasota.

31.ESTATUTUen 16, 46 eta 52. artikuluek arautzen dute gaia.

16. artikulua. Elkargokideen obligazioak.

i) Lanbidearen jardunean izenpetzen duen dokumentazio guztia Elkargoak onetsi, erregistratu eta egiaztatu behar du, betiere, hori guztia lege-mailako arau batek edo betekizun hori espresuki ezartzen den Erregelamendu batek eskatzen duenean. Horrela, obligazio hori ez betetzea Estatutu hauetan ezarritako diziplina-erregimenean dauden falta larritzat joko da.

46. artikulua.

Gobernu Batzordearen funtzio propioa izango da edo Lanbidean Modu Librean Jarduteko Batzordearen bidez egindako funtzioa edo Elkargoaren Idazkaritza Teknikoaren bidez egindako funtzioa Peritu Industrialek, Ingeniari Tekniko Industrialek edo Graduako Ingeniariek izaera ofizialeko edo pribatuko Erakundeetan aurkeztu behar dituzten lanen eta dokumentuen legalizazioa, erregistroa eta onespena.

Onespenak izango du, kasu guztietan, behar bezalako elkargoko kide den tituludun teknikariaren identitatea eta gaikuntza, erregelamenduen eta jardute profesionalari nahiz lurraldeko lehiari buruzko Elkargoko hitzarmenen betetzea, eta lanaren barnean dagoen dokumentazioaren zuzentasuna eta osotasun formala. Zehazki, zehaztaperen teknikoari eta aurkezpen-baldintzei buruzko araudia modu formalean betetzen dela bermatuko du, baita gauzatzeko aurrekontuaren egiazkotasuna ere. «Onespenak ez dakar ez ordainsaririk ez kontratuko gainerako baldintzarik; izan ere, horiek alderdiek askatasunez erabaki dezaten uzten dira.

52. artikulua. Arau-hausteen tipifikazioa

Elkargoko Gobernu Batzordearen diziplinako zigorrak izan daitezkeen arau-haustek arin, larri edo oso larri gisa sailkatzen dira.

(...)

b) Arau-hauste larriak hauek dira:

(...)

b.6 Elkargoko onespeneren menean ez jartzea bere lanbidearen jardunean Elkargoko kideak izenpetzen duen dokumentazioa, betiere, dokumentazio hori eskatzeko betekizuna espresuki ezartzen duen lege-mailako araudi batek edo Erregelamendu batek hala eskatzen duenean.

32. Elkargoak soilik onetsi ahal izango ditu, batetik, bezeroak bere borondatez lan profesionalak onestea eskatzen badu eta, bestetik, Errege Dekretuko zerrendan dauden lanak badira eta horiek nahitaezko onespena eskatzen badute.

C. Objektua

33. EELko 24. artikuluko i letrako artikuluan ezartzen da onespeneren **objektua**: «Gutxienez lana egin duena nor den eta zer gaikuntza duen egiaztatzea, eta lan profesional horren dokumentazioa zuzena eta formaz egokia dela ziurtatzea, lan horri aplikatzen zaion araudiaren arabera. Onespenak oso argia izan behar du bere objektuari, kontrolatu diren kontuei eta Elkargoak hartzen duen erantzukizunari buruz.



Baina, onespenean ez dira egongo inola ere ez ordainsariak ez eta kontratuaren baldintzak ere, bai bata eta bai bestea aldeek adostutako akordioaren barruan finkatu beharko baitira. Onespenak ez du jasoko lan profesionalaren elementu fakultatiboan kontrol teknikorik ere. Elkargoaren onespena ezinbestekoa den kasuetan, onespenearen kostuak arrazoizkoa izan behar du, ez gehiegizkoa ezta diskriminatzailea ere. Elkargoek argitaratu egin behar dute onspenearen kostua, eta telematikoki izapidetu ahal izango da»²⁷.

34. ESTATUTUetan 46. artikuluan arautzen da gai hori:

46. artikulua.

Gobernu Batzordearen funtzio propioa izango da edo Lanbidean Modu Librean Jarduteko Batzordearen bidez egindako funtzioa edo Elkargoaren Idazkaritza Teknikoaren bidez egindako funtzioa Peritu Industrialek, Ingeniari Tekniko Industrialek edo Graduoko Ingeniariek izaera ofizialeko edo pribatuko Erakundeetan aurkeztu behar dituzten lanen eta dokumentuen legalizazioa, erregistroa eta onspena.

Onespenak izango du, kasu guztietan, behar bezalako elkargoko kide den tituludun teknikariaren identitatea eta gaikuntza, erregelamenduen eta jardute profesionalari nahiz lurraldeko lehiari buruzko elkargoko hitzarmenen betetzea, eta lanaren barnean dagoen dokumentazioaren zuzentasuna eta osotasun formala. Zehazki, zehaztapen teknikoari eta aurkezpen-baldintzei buruzko araudia modu formalean betetzen dela bermatuko du, baita gauzatzeko aurrekontuaren egiazotasuna ere. «Onespenak ez dakar ez ordainsaririk ez kontratuko gainerako baldintzarik; izan ere, horiek alderdiek askatasunez erabaki dezaten uzten dira.

35. Artikuluko bigarren paragrafoan ez daude jasota Legean zehaztutako preskripzio guztiak.

Estatutuetan onspenen edo bisen edukia sartzea erabaki denez, aholkatzen da araudian ezarritako zehaztapen guztiak sartzea, eta ez soilik araudi horien zatiak. Horregatik guztiagatik, hauek ere jaso beharko dira:

- Oso argi adierazi beharko da onspenearen objektua.
- Oso ondo zehaztu beharko da zein gai dauden onspenearen barnean.
- Zein den Elkargoak hartzen duen erantzukizuna.
- Ez duela bere barnean hartuko teknikari fakultatiboan kontrola.

D. Onspenen edo bisen kostua

36. EELaren 24. artikulua hau ezarri du: «Ustez onspena derrigorrezkoa den kasuetan, bere kostuak arrazoizkoa izan behar du, ez gehiegizkoa ezta diskriminatzailea ere, eta, era berean, onspenearen kostua argitara emango du Elkargoak»

37. ESTATUTUetan 12. artikuluan arautzen da gai hori:

12. artikulua. Ohiko baliabideak.

²⁷ Hala dio EPLaren 13.1 artikulua ere.



(...)

5.- Elkargoak profesionalen lanak onesteko eskubideagatik eskatzen duen ehunekoa.

38. Onespenengatik Elkargoak ezartzen duen kostuak publikoa izan beharko du. Gainera, arrazoizkoa izan beharko du, ez gehiegizkoa ezta diskriminatzailea ere.

5. Elkargoko kideak elkarren kontrako lehia bidegabean aritzea

39. Gaur egun, urtarrilaren 10eko 3/1991 Legea dago indarrean gure sistemaren barruan, eta hark oso debeku zehatzak ezartzen ditu. Besteak beste, nabarmentzekoa da 4. artikuluko klausula orokorra, zera xedatzen baitu: «**Kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko harremanetan**, ulertuko da fede onak eskatzen duenaren kontrakoa dela enpresaburu edo profesional batek prestasun profesionalaren kontrako jokabide bat izatea —merkatuko praktika zintzoen arabera enpresaburu batengandik espero daitekeen gaitasunaren eta arreta berezien mailatzat ulerturik prestasun profesionala—, jardunbide haren xede den batez besteko kontsumitzailearen jokabide ekonomikoa edo —kontsumitzaile talde konkretu bati zuzenduriko merkataritza-jardunbidea bada— xedetaldeko **batez besteko kidearena modu adierazgarrian desorekatzen duena edo desoreka dezakeena**». Klausula orokor horrekin bat, arauko 5-31. artikuluek arautzen dituzten jardunbideak bakarrik har daitezke desleialtzat. Publizitateari dagokionez, berriz, azaroaren 11ko 34/1988 Lege Orokorrak, publizitateari buruzkoak, legez kontrakoak jotzen dituenak bakarrik har daitezke desleialtzat.

40. ESTATUTUetako 9 eta 52. artikuluek arautzen dute gaia.

9. artikulua. Elkargoaren funtzioak

Honako hauek dira elkargoaren funtzioak:

ñ) Lehia desleiala eta intrusismoa ekiditeko beharrezkoak diren neurriak hartzea, ordenamendu juridikoan aurreikusitako ekintzen bitartez.

52. artikulua. Arau-hausteen tipifikazioa

Elkargoko Gobernu Batzordearen diziplinako zigorrak izan daitezkeen arau-haustek arin, larri edo oso larri gisa sailkatzen dira.

(...)

b) Arau-hauste larriak hauek dira:

(...)

b.8. Lehia desleiala dakarten ekintzak.

41. Nolanahi ere, «lehia desleialari» buruzko aipamen orokor horrek —Legean jasotzen dena baino zertxobait zabalagoa den edukia esleitu ohi zaio terminoari— lehia mugatu dezakeela azpimarratu behar da.

Kontuan izanik aldaketak izan direla gaiari buruzko araudian eta kontuan izanik Elkargoko kideek ez dutela zertan izan haien berri, komeni da ESTATUTUetan berriaz aipatzea lehia desleialari buruzko legearen zer arau konkretu urra lezaketen profesionalen jardunbideek. Tentu berezia izan behar da gutxieneko ordainsariak ezartzea edo ezartzen laguntzea, sariak koordinatzea eta horiek libreki finkatzen ez



uztea eragin lezakeen elementurik ez aipatzen, ez eta profesionalen komunikazio komertzialak mugatzen lagun lezakeen elementurik ere.

Horrez gain, zorrotz zaindu behar da xedapen horren garapena eta erabilera, zeren, lehenago ere esan dugun bezala, Elkargo bat LBLaren mende egotea ez da haren Estatutuek hitzez hitz araudiari men egitea bakarrik. Aitzitik, elkargoen ekintza eta erabaki guztiek ere araudiari men egin behar diote.

6. Elkargoa elkargokideen lehia desleial gisa

42. Lehia Desleialaren Legeak ezartzen du «arauak urratzea» lehia bidegabea izan daitekeela.

Bestalde, EELaren 24 artikulua hau dio «Hauek dira Elkargo profesionalen funtzioak:

- a) Etika profesionala eta herritarren eskubide eta interesei zor zaien errespetua zaintzea.
- b) Lanbidearen jarduna antolatzea, dagokion eremuan eta ezarritako lege-esparruaren barruan.
- c) Lanbidearen jarduna legezkoa eta egokia izatea eta elkargokideen eginbeharren eta obligazioen betetzea zaintzea.
- d) Diziplina-ahalmenaz baliatzea 19. artikuluan aurreikusitako moduan.
- e) Lanbideko ordainsari-baremoak ezartzea —orientagarriak izango dira—.
- f) Elkargokideek eskatuta, eta elkargo bakoitzaren estatutuetan zehaztu bezala, hartzeko, sari edo ordainsari profesionalen kobrantzaz arduratzea. Laneko ordainsariei buruzko alderdiak eztabaidatzen diren prozesu judizialean eta administrazio-prozeduretan txostena egitea.
- g) Elkargokideei zerbitzu komunak ematea eta, batez ere, etenik gabeko prestakuntza profesionala sustatzea eta lanbideari zor zaion eraginkortasuna zaintzea.
- h) Arbitraje bidez edo artekaritza eginez, elkargokideen artean sortzen diren lanbide-gatazketan parte hartzea, baita elkargokideek hirugarrenekin dituzten gatazketan ere, baldin eta parteek adostasunez hala eskatzen badute.
- i) Elkargokideek egiten dituzten lan profesionalak onestea, elkargoaren estatutuek hala ezartzen badute edo dagokion legeriak hala xedatzen badu. Onespenak honako hauek egiaztatu beharko ditu: lanaren egilea nor den, egilearen titulazioa, gaitasuna eta gaikuntza, eta lanaren eduki formala. Onespen horretan ez dira sartuko ordainsariak eta kontratuko gainerako baldintzak; horiek zehaztea parteen esku utziko da.
- j) Administrazio publikoarekin lankidetzan jardutea interes komunak lortzeko. Gehienbat, elkargo profesionalak:
 - Administrazio-organoetan parte hartuko dute, organo horien arauak hala aurreikusten dutenean; eta arau horietan ezarritako moduan jokatu beharko dute.
 - Eskumena duten organo eta erakundeek eskatzen dizkieten edo beren ekimenez lantzen dituzten txostenak emango dituzte.
 - Eskatzen zaizkien estatistikak egingo dituzte.
- k) Lehia desleiala eta intrusismoa ekiditeko beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte ordenamendu juridikoan aurreikusitako ekintzen bitartez.
- l) Aurrekontuak onartu eta elkargokideek egin beharreko ekarpenak arautuko dituzte.
- m) Gai espezifikoari buruzkoak jakitea eskatzen den epaimahaietarako ordezkariak izendatuko dituzte—hala eskatzen bazaie—.



- n) Lanbidearen interesentzat onuragarriak diren eta Elkargoaren helburuak betetzera bideratuta dauden gainerako funtzioak izango dituzte.
- ñ) Indarrean dagoen legeriak ematen dizkion gainerako funtzioak izango dituzte.

Amaitzeko, EELaren 5. artikulua Elkargoko kidea izateko betekizunak ezartzen ditu
«1. Jarduera profesional tituludun batean aritu ahal izango dute baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak:
a) Dagokion titularen jabe izatea, lege honetako 2.1. artikuluan xedatutakoarekin bat.
b) Ez egotea desgaitasuna profesionaleko egoeran.
c) Legeek ezarritako bateraezintasun edo debeku kasuren batean ez egotea.
d) Elkargoko kidea izateko arauak, halakorik bada, betetzea.
2. Soilik legeak hala araututa, aurreko baldintzez bestelako baldintzak ezarri ahal izango dira.

43. ESTATUTUetako 9 eta 12. artikuluek arautzen dute gaia.

9. artikulua. Elkargoaren funtzioak
Honako hauek dira elkargoaren funtzioak:
n) Administrazio Publikoarekin lankidetzan jardutea interes komunak lortzeko. Eta bereziki:
n.2) Eskumena duten organo eta erakundeek eskatzen dizkieten edo bere ekimenez lantzen dituen txostenak ematea.

12. artikulua. Ohiko baliabideak.
(...)
4.- Bai alderdi batek eskatuta bai ofizioz eskatuta Elkargoari eskatzen zaizkion peritxosten edo -irizpenetik (horien ordainsariak, kasu bakoitzean, iritziaren arabera Elkargoko Gobernu Batzordeak ezarriko ditu) sortutako eskubideak.

44. 12. artikulua Elkargoaren finantziario-iturri gisa ezartzen ditu Gobernu Batzordeak igorritako txosten eta irizpenei dagozkien eskubideak. Ez dago artikulurik Elkargoak gauzatutako lan horien izaera jasotzen duenik; nolana ere, horiek izaera profesionaleko lanak badira, lan horiek elkargokideei dagozkien lan gisa hartu beharko dira, Elkargoak ez baitu horiek garatu ahal izateko titulurik. Bestela, Elkargoa bere elkargokideekin arituko litzateke lehian. Alde horretatik, bi ondorio izan ditzake Elkargoak lanbideari dagozkion lan profesionalak egiteak:

- Elkargoa eragile ekonomiko bat izango litzateke, zerbitzuak emateko erreferentziazko eskaintzailea, eta profesionalek merkatuan zuzenean parte hartu ahal izateari kalte egin.
- Eragile batek (Elkargoak) lehentasuna izango luke haren kideen kaltetan, eta hori ez da sustagarria kideentzat. Sistema horren eraginez, baliteke zerbitzu jakin batzuk barnean banatzea, Elkargoak negozioa «beretzat hartuta».

Horrenbestez, eta 12. artikulua ezabatzea erabakitzen ez bada, honako hau txertatzea proposatzen da: «Eskubide horiek ez dira, inola ere, Elkargoak eskainitako zerbitzuetatik etorriko.»



7. Elkargoaren baliabide ekonomikoak

45. Lehiaren Batzorde Nazionalak egindako Elkargo Profesionalei buruzko Txostenean hau dio: «Ikuspegi ekonomikotik begiratuta, Elkargoko kide egiteko zein izateko kuotak garestiak badira, kostu hondoratutzat har litezke –batez ere Elkargoko kide izateak merkatuan jarduteko abantaila konpetitibo nabarmena ematen badu–. Gertaera horrek bi ondorio ditu: alde batetik, lehiakide berriak desanimatzen dira, atzeratu egiten da horiek merkatuan sartzeko aukera eta ezin izaten dute merkatuan sartu eta, horrenbestez, benetako lehia murrizten da. Bestalde, erabiltzaileek eta kontsumitzaileek pairatzen dituzte elkargokide egiteko eta izateko ordaindu beharreko kostuen ondorioa erraztea»²⁸.

46. ESTATUTUetan 12. artikuluan arautzen da gai hori:

12. artikulua. Ohiko baliabideak.

Honako hauek izango dira Elkargoaren ohiko baliabideak:

- 1.- Elkargoaren kapitala edo ondarea osatzen duten ondasunek eta eskubideek sortzen dituzten mota guztietako emaitzak, mozkinak, interesak eta balioak.
- 2.- Elkargoak zehazten duen aldian behingo kuota arrunta.
- 3.- Elkargoak bertan sartzeko ezar dezakeen kuota.
- 4.- Bai alderdi batek eskatuta bai ofizioz eskatuta Elkargoari eskatzen zaizkion peritxosten edo -irizpenetik (horien ordainsariak, kasu bakoitzean, iritziaren arabera Elkargoko Gobernu Batzordeak ezarriko ditu) sortutako eskubideak.
- 5.- Elkargoak profesionalen lanak onesteko eskubideagatik eskatzen duen ehuneko.
- 6.- Elkargoak egiten dituen publikazioetatik eta hainbat jarduketetatik lortzen dituen onurak edo antola ditzakeen edo parte har dezakeen ikastaroetako matrikuletatik lortzen dituen onurak.
- 7.- Edozein ziurtagiri egiteagatik edo Elkargoaren esku-hartzeagatik Gobernu Batzordeak ezar ditzakeen eskubideak.

47. Elkargoan sartzeko egiten diren eskaerarako ezartzen den kuota horri dagokionean, aintzat izan behar da proportzionala eta ez diskriminatzailea izan behar duela, eta hura izapidetzeak eragiten duen benetako kostuan oinarrituta behar duela egon. Elkargora sartzeko kuota ez da erabili behar ez Elkargoaren beste zerbitzuen finantzazio-iturri gisa, ez lanbidera sarbideari pizgarria kentzeko tresna gisa, are gutxiago Elkargoko kidea izatea nahitaezkoa den lanbideak badira.

8. Enkarguak Elkargoaren bitartez esleitzea elkargokideei

48. ESTATUTUetako 9 eta 15. artikuluek arautzen dute gaia.

9. artikulua. Elkargoaren funtzioak

Honako hauek dira elkargoaren funtzioak:

(...)

²⁸ LBNaren txostena, 57. or.



k) Elkargoaren eremuaren barnean dagoen informazioaren zerbitzu aktibo eta eraginkorra mantentzea. Informazio hori Peritu Industrialek, Ingeniari Tekniko Industrialek eta adar Industrial horretako Ingeniaritzan Gradudunak direnek estali, egin edo gara ditzaketen plazei eta lanei buruzkoa izango da. Horren guztiaren helburua da zereginak hobeto egokitzea, beraien zeregin profesionalaren eta errendimendu industrialaren efizientzia handiagoa izan dadin.

p) Gai jakinei buruzko erakunde edo epaimahai batek ezagutza eskatzen badu, ordezkariak izendatzea.

15. artikulua. Elkargokideen eskubideak

c) Elkargoak eman ditzakeen informazio eta zerbitzuetatik (aholkularitza juridikoa, fiskala, laneko aholkularitza, lan-poltsa, dagokion prestakuntza, eta abarretatik) behar duten adina jasotzea.

e) Elkargoari eskatzen zaion eta elkargokideen artea ezarritako Ofizio Txanda dela-eta elkargokide bati egokitzen zaizkion irizpen, txosten, proiektu, aholkularitza eta gainerako lanak egiteagatik dagozkion onurez baliatzea.

Aipatutako Ofizio Txanda Elkargoaren edo funtzio horretarako eratu den edo funtzio hori esleitu zaion Batzordearen zaintza eta kontrolpean egongo da, ordena zorrotz batean eta modu erabat bidezkoan egiteko Ofizio Txanda.

49. Funtzio horietan jardutean Elkargoak lehiaren defentsari buruzko araudiari egiten zaion edozein murrizketa saihestu behar du. Zerrendak egiten direnean Legean, zehazki, tasatzen diren baldintzak baino gehiago sartu behar dira.

Elkargoak lan-zerrendak edo -poltsak ezartzeko erabakia hartzen badu, horietan sartu nahi duten profesionaleri trabak jartzen dizkieten justifikaziorik gabeko izena emateko baldintzak ezarri gabe egin beharko du. Zehazki, Prozedura Zibilaren Legean xedatutako mandatu betetzeko epaitegietara bidali beharreko peritu judizialen zerrenda egiten bada, Elkargoak ezingo ditu Legeak zehazten dituen baldintzak baino gehiago jarri. Bestela, profesionaleri justifikaziorik gabeko sarrera-oztopoak ariko litzateke ezartzen.

Hala, Elkargoak ez du profesionalen jarduna koordinatzera bideratutako ekintzarik egin behar, ez eta zerbitzu-eskaintzaren homogeneizatzea errazten lagundu behar ere.

Elkargoak ezingo ditu bere elkargokideen artean merkatua banatzeko sistemarik ezarri ezta horiek ezartzen lagundu ere. Izan ere, horrela ez da uzten profesionalen arteko lehia pizgarria izaten, bezeroen kaltetan.²⁹:

9. Oker egindako lanen erantzukizuna. Erantzukizun zibileko aseguruak

50. *Aterki* legearen 21. artikulua erantzukizun profesionalerako aseguru eta bermeei buruzkoa da, eta hark xedatu zuen lege baten aginduz baizik ezin zaiela exijitu zerbitzu-emaleei erantzukizun zibil profesionalerako aseguru bat, edo antzeko beste

²⁹ LBNk hainbatetan eman du aditzera zer iritzi duen banatze-txandak direla-eta. Adibidez, Gaztela-Mantxako Farmazialarien Elkargoari buruzko 639/08 espedientearen ebazpena. Bertan, aztertzen zen farmazia-zerbitzua emateko txandakako aldiak ezarri izana, eta Bilboko Notarioen Elkargoari buruzko 562/2003 espedientearen ebazpena, besteak beste.



bermeren bat, sinatua izatea zerbitzua eman izanaren ondorioz eragin litezkeen kalteak estaltzeko³⁰. Artikulu berak ezarri du obligazio hori legez noiz exijituko den erabakitzeke irizpide gisa ematen diren zerbitzuek zuzeneko arrisku konkretu bat ekartzea hartzailearen edo hirugarren baten osasunari nahiz segurtasunari, edota hartzailearen segurtasun finantzarioari.

EELaren 12. artikulua, hala, xedatu du tituludun profesionalak aseguru baten bidez estali behar dituztela beren jarduera profesionalak eragin litzakeen arriskuak, eta lanbideak elkargo profesionalik badu, Elkargoak hartu beharreko neurriak hartuko dituela bere kideek betebeharrak hori betetzen dutela bermatzeko.

51. ESTATUTUetako 52 artikuluan arautzen da gaia:

52. artikulua. Arau-hausteen tipifikazioa

Elkargoko Gobernu Batzordearen diziplinako zigorrak izan daitezkeen arau-haustek arin, larri edo oso larri gisa sailkatzen dira.

(...)

b) Arau-hauste larriak hauek dira:

(...)

b.4 Aseguramendua izateko beharra ez betetzea, hala badago ezarria legearen bidez edo estatutuen bidez.

52. Alde horretatik, Elkargoak hauek izango beharko ditu kontuan:

- Exijitzen den bermea estaltzen den arriskuaren izaerarekiko eta muntarekiko neurrikoa izango da.
- Hori dela eta, Elkargoak aintzat izan beharko du ezin dituela inola ere bere kideak aseguru edo aseguru-etxe jakin batekin bat egitera behartu.

Aurretik aipatutakoari jarraiki, soilik legearen bidez eskatu ahal izango zaie zerbitzu-emaleei erantzukizun zibil profesionaleko aseguru bat izatea edo baliokidea den beste berme bat izatea. Aseguru edo berme horrek zerbitzua ematean sor daitezkeen kalteak estaltzeko modukoak izan beharko dute. Horrez gain, estatutuetako atal bateko eten batean ezartzen da aseguru izateko betebeharra dagoela, baina hori ezabatu egin beharko litzateke.

³⁰ 21. artikulua. Erantzukizun profesionaleko aseguruak eta bermeak.

1. Zerbitzu-emaleei exijitu ahal izango zaie lege-mailako arau baten bidez erantzukizun zibil profesionaleko aseguru bat edo antzeko beste berme bat sinatzea zerbitzua eman izanaren ondorioz eragin litezkeen kalteak estaltzearen, ematen diren zerbitzuek hartzailearen edo hirugarren baten osasunari nahiz segurtasunari, edota hartzailearen segurtasun finantzarioari zuzeneko arrisku konkretu bat ekartzen dieten kasuetan.

Exijitzen den bermea estaltzen den arriskuaren izaerarekiko eta muntarekiko neurrikoa izango da.

Horiek jaulkitako ziurtagiriak onartu egingo dira akreditazio gisa.



IV. ONDORIOAK

Lehena.- Elkargoko lanbideetan aritzen direnek lehia askean aritu behar dute, eta Lehia Defendatzeko 15/2007 Legea bete behar dute, bere osotasunean.

Bigarrena.- Elkargoko kide izateko beharrak lehiarekin zerikusia duten gaiak planteatzen ditu, eta ez merkatura sartzeari dagokionez bakarrik, baita lanbidearen jardunari dagokionean ere, eta horrek interes publikoa eta kontsumitzaileak kaltetu ditzake. Hori dela-eta, muga hori justifikatzen duten eta interes publiko kaltetuak daudela egiaztatzen denean bakarrik onartu ahal izango da hura derrigorrean ezartzea (lege bidez bakarrik).

Hirugarrena.- Edonola ere, Elkargoek burutzen duten Elkargoko lanbideetako jardunaren antolamenduak, interes korporatiboen defentsan ez ezik, Elkargoetako kideen zerbitzuak kontsumitzen eta erabiltzen dituztenen interesen babesean ere oinarritu behar du, gizartearen asmo eta behar orokorrekin bat.

Laugarrena. Txosten honen bidez, Lehiaren Euskal Agintaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko Perituen, Industria Ingeniari Teknikoen eta Industria Ingeniaritzako Graduatuen Kontseiluaren Estatutuetako hurrengo artikulua hauek aldatu beharra planteatu du: 2 (Elkargoko kidea izateko obligaziozkotasuna eta titulazioa), 3 (komunikazioa), 9 (ordainsarien interpretazioa), 46 (onespenaren edukia) eta 52 (elkargokideen arteko lehia desleiala eta erantzukizun profesionala). Era berean, gomendatzen du artikulua egokitzea eta aldatzea: 9. art. (ordainsari orientagarriak eta Elkargoak elkargokideei egiten dien lehia), 15. art. (Elkargoaren bidez elkargokideei enkarguak esleitzea). Horrez gain, gomendatzen du txostenean egin diren iradokizunak jarraitzea.

Bilbon, 2014ko uztailaren 17an

PRESIDENTEA
MARÍA PILAR CANEDO ARRILLAGA

IDAZKARIA
IBON ALVAREZ CASADO

KONTSEILUKIDEA
NATIVIDAD GOÑI URRIZA

KONTSEILUKIDEA
RAFAEL ITURRIAGA NIEVA